

# GIARDIA LAMBLIA

PERTSONENGAN GIARDIASIA

SORTU AHAL DUEN PARÁSITO INTESTINALA, JATORRIZ KUTSATUTA DAUDEN URA EDO LANDARE-ELIKAGAIK KONTSUMITZEAGATIK



## AINTZAT HARTU BEHARREKO ELIKAGAIK


Giardia kisteak zenbait hilabetez bizirauten dira ingurunean, infektatutako pertsona edo animalia baten gorotzetan kanporatu ostean; hala, gainazaleko ura eta frutak eta barazkiak kutsatu ahal ditu.

Uraren edo fruta eta barazki gordinaren kontsumoarekin lotzen da; izan ere, kisteek uraren klorazioa jasaten dute, baina irakitearekiko eta izoztearekiko sentikorrak dira.



## GIARDIASIA

Giardiak eragindako gaixotasuna, asintomatikoa edo sintomatikoa izan ahal dena (beherako akutu arina edo beherako-sindrome kronikoa)



### SINTOMAK

#### ► Urdail-hesteetakoak:

Min abdominala, beherakoa, flatulentziak, goragaleak

### ARRISKU-TALDEAK

Haurrak  
Haurdun dauden emakumeak

## JARDUNBIDE EGOKIAK etxean

GARBITU	DESINFEKTATU	GARBITU	IRAKIN	EROSI	MANTENDU	KOZINATU	EKIDIN
eskuak edozein elikagai manipulatu aurretik.	tresnak, taulak, gainazalak...	edateko urarekin frutak eta barazkiak, gordin kontsumituko badira.	Iturburuko edo putzuko ura, ez badago ur hori edan ahal dela ziurtatzen duen osasun-bermerik.	itsaskiak horretarako baimena duten establezimenduetan, eta ez jan molusku bibalbo gordinak.	hotz-katea elikagai gordinak garraiatzean, eta ahalik eta azkarren hoztu, prestatu eta kontsumitu arte.	ondo elikagaiak eta bero mantendu kontsumitu arte. Kontsumitu ostean, ahalik eta azkarren hoztu.	elikagai kozinatuen eta gordinen arteko kutsadura gurutzatua.



### EZ DESIZOZTU

elikagaiak giroko tenperaturan, baizik eta hozkailuko beheko partean.